

# BETERRIKO ALDIZKARIA

# AIURRI

1996ko maiatzaren 17a. 36. zenbakia. Dohain banatzen da.



*Joan zara baina gurekin zaude  
Antton, sinistu zazula  
zu ta zureak elkarrengandik  
ezin bereiztu sekula.  
Jakizu, Antton, Larraulek beti  
gogoratuko zaitula  
badakilako zuk ere bera  
beti barruan zenula.*

*Jexux Mari Irazu*

# GALARDI

## UDAL HAURTZAINDEGIA



ANDOAINGO  
UDALA



### HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLO OSOA: 0 - 3 URTE

- **EUSKARAZ: 3 GELA**
  1. MAILA: 0 - 1 URTE BITARTEAN
  2. MAILA: 1 - 2 URTE BITARTEAN
  3. MAILA: 2 - 3 URTE BITARTEAN
- **JANGELA:**  
ADINARI EGOKITUTAKO  
ELIKADURA PROGRAMA
- **ORDUTEGIA:**  
GOIZEKO 7,30 ETATIK  
ARRATSALDEKO 17,00 ETARA
- **KUOTAK:**  
GURASOEN DIRU SARRERA  
GORDINEN ARABERA

### 1996 - 97 IKASTURTERAKO MATRIKULAZIOA

- **EGUNAK:**  
MAIATZAK 20TIK - 31RA
- **ORDUAK:**  
GIZEKO 10 ETATIK  
EGUERDIKO 13 ETARA
- **NON:**  
URIGAIN KULTUR ETXEKO  
IDAZKARITZAN
- **INFORMAZIOA:**  
URIGAIN KULTUR ETXEAN

 30 08 23



1. **AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK**  
Jone Larrañaga: "Ez naiz festazalea"
2. **GALDEZKA.**  
Eta zuk, modari jarraitzen al diozu?
3. **ADUNA.**  
Belkoain gazte elkarte.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**  
Ur beroa eguzki izpien indarrez.  
1.500 milioi 1996erako.  
Otitu eta Olazarreko iharduera arautua.
7. **ASTEASU.**  
Aste Kulturala, maiatzak 21-25.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**  
Presoak bisitatzeraz joateko dirua.  
Gurea aretoan erakusketa ikusgai.
10. **ZIZURKIL.**  
Jubilatuena etxeko taberna enkantean.
11. **ENPRESA.**  
Truchas Erreka haztegia.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**  
Antton Amonarritz gogoratu.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**  
"Ortiz": Herrien autodeterminazio eskubidea.
- 16-17. **KULTURA.**  
Xabier Egaña, margolari eta eskultore.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15. 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31  
**Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.  
**Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oiaratzabal  
**Argazkiak:** Manu Mujika. **FOTO TRUCHUELO.** Andoaingo Udala, Euskaldunon Egunkaria **Komikia:** Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu  
**Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri.  
**Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati).  
**Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-20294 **ISSN:** 11354-0614  
**Tirada:** 3.850 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



## EZ NAIZ FESTAZALEA



JONE LARRAÑAGA

**B**ezperan mailukadaka aritu izan balitzaizkit ere ez nukeen halako burukominik izango. Eztarria erre-erre egina dut, azkureak behar bezala lixurik irensten uzten ez didala. Eta astelehena gainera, astelehen galanta, Santakruz ondoren honetan ez nago lerro ingeniotsurik idazteko moduan.

Oker zabiltza, irakurle, joan deneko asteburuan gehiegikeritan aritu naizela pentsatzen ari bazara. Izan zitekeen, baina ez: sintoma fisiko horiek ez dira festa eta parrandaren ondorenak. Gripe txatxu bat datorkit, nabari dut. Ez da parrandaren ajea, ez naiz eta festazalea.

Festa kuttunik bada, Santakruzak dira niretzat. Herrian ditugun guztien artetik -eta ez dira gutxi- herrikoienak dira, oroitzapen onenak eman dizkidanak, jatorrenak seguraski. Hala ere, ez dute niregan beste askorengan izaten duten katarsi eraginik. Festazale amorratuek nahiago izaten dute opor egunak festetan xahatu, guztia alde batera utzi eta egunerokoari paroi eman jai-jiroan erabat murgilduz, etxera oraindik bizi den abixua emateko erretiratu juxtu-juxtu...

Halakorik gutxietan egin dut ba nik. Are gutxiago festa gehienak larunbateko poteo erronda errepikatuzera mugatu direnetik kasik. Badira oraindik, badakit, festetan buru-belarri sartuta parte hartzen dutenak, baina extintzioan daude. Gehien-gehienek pote bat bukatu orduko mugitzen dira ondoko txosna edo tabernara, eta handik hurrengora, eta buelta atzera. Ah, kieto, baino festetan kriston giroa, eh? Antza, orain jende kopuruak egiten baititu festak giro txarrekoak ala onekoak.

Oraindik orain oilo ipurdiko azala jartzen zait danborrada Santa Krutz martxa jotzen entzuten dudanean. Lanak izaten ditut, baina, lagunak tabernatik atera eta danborreroen ondora joan gaitzen konbentzitzen. Gau guztia gauza bera egiten pasa behar eta ezin deskantsurik egin, ba!

Joan den udan hango eta hemengo festei buruzko berri emanez lan egitea egokitu zitzaidan. Aurretik zantzua banuen arren, orduantxe sendotu nituen susmoak. Berdinak dira ia festa guztiak, batetik bestera aldaketarik ez apenas: dianak, danborrada, dantzariak, bertsolariak... eta gaueko poteo luuuuuzea. Eta aitor dezagun, gureak ez dira diferentek. Gureak kuttunagoak dira, besterik ez.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren laguntza jasotzen du

# ETA ZUK, MODARI JARRAITZEN AL DIOZU?

*Urte sasoi bakoitzak badu, edota hala beharko luke, bere eguraldi eta giroa; eta bizi garen garai honetan, urtaruari egokitutako eguraldia egin ala ez, uda, udazken, negu eta udaberriro modak esan ohi digu zer eta nola jantzi. Esan, esaten digu; jaramonik egiten ote diogun beste kontu bat da. Batzuei moda-modako jantziak*

*soinean jarrita ibiltzea gustatzen zaie; beste batzuk "klasikoak" dira janzteko orduan, eta beti betikoa eraman ohi dute; berezko estiloa dutenak ere izaten dira, handik eta hemendik hartuz, bururatu bezala moldatzen direnak. Eta zuek, bete-bete gauden udaberri honetan, modari jarraituz janzten al zarete?*



## Mari Karmen Mujika, etxekoandrea. Asteasu.

Pixka bat jarraitzen diot. Udaberri eta udazkenean dendetako eskaparateak politago egoten dira, arropa berriak ekartzen dituzte, eta beti erosten dut zerbait. Baina ez naiz itsututa modan dagoen guztia erostera joaten: iazko arropa gustoko badut, hura erabiltzen jarraitzen dut.



## Emilia Mariño, etxekoandrea. Billabona.

Ez, ez diot jarraitzen. Haurrak ditut, eta beraz, arropa erosoa erabiltzen dut. Ezkongabea nintzenean jarraitzen nion, baina behin adin batera iritsita eta haurrak eduki eta gero, ez da lehen bezala. Hala ere, jaiegunetan erabiltzeko arropa berezia daukat: dotoreagoa.



## Kristobal Flóres, ikaslea. Andoain

Nik beti txandala janzen dut; hori bai, modan dauden txandalak eramaten saiatzen naiz: Nike markako arropa gustatzen zaiz, galtzak Adidas, eta zapatilak Adidas edota Jhon Smith. Beste arropari ez diot erreparatzen, txandalei bakarrik.



## Eider Arruti, ikaslea. Zizurkil.

Ez, batere ez. Gustokoa dudana arropa mota erosten dut, baina arropa guztia garestia da. Uda datorrela eta, zerbait erosteko asmoa dugu nik eta nire lagunek, baina dirua da arazo. Donostia edota Tolosara joan ohi gara paseatzera, eta bide batez arropa erostera.



## Ione Anasagasti, ikaslea. Aduna.

Batzuetan, diruaren arabera. Modako jantzi batzuk atsegin ditut, baina denak berdin jantzita ibiltzea ez zaiz gustatzen. Azken finean, gustoko dudana arropa erabiltzen dut; gauza bereziak gustatzen zaizkit. Hala ere, ez dut diru asko gastatzen, asko begiratzen diot diruari.




## Maria Jesus Blanco, ikaslea. Andoain

Gauza itsusirik, normala denez, ez dut erosten; oso modernoa ere ez. Nahikoa arropa normala erosten dut. Erreparatzen diot modari, baina nire gustokoa ez bada, ez diot hari jarraitzen. Gainera, moda-modako arropa erosten baduzu, urte batetik bestera jantzi ezinda gelditzen zara.

**Joxe Ramon**  
— TABERNA —  
**PINTXO EDERRAK !!**  
Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

**ALFARO**  
**J A T E T X E A**  
EGUNEROKO MENUA  
Etxeberrieta auzunea  
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

  
**ALOTZ**  
IZOZKINAK  
Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06  
ANDOAIN

# BELKOAIN GAZTE ELKARTEA

**Herriko gazteen arteko harremanak sendotu nahi dituzte**

*Duela hilabete gutxi hartu dute herriko zazpi neskek Belkoain gazte elkarteko ardura. Hemeretzi-hogei urteko gazteak dira guztiak, baina hamalu urtetik hogei-ta hamar urte bitarteko herritar oro izan daiteke elkarteko partaide. Adunako gazteak elkar ezagutzera eta lagun egitea lortu nahi dute, eta gainera herria zuzpertzu nahi dute. Orain burubelarra ari dira lanean, festak antolatzen, alegia.*



*Gazteek gogo handiz ekin diote lanari*

**D**uela hogei urte sortu zen Belkoain elkarteak, gazte festak antolatzeaz gain, ezer gutxi egiten zuen azken urteotan. Elkarteko ardura hartu berri duten zazpi neskek berriz, ohiko ekintza horiek eta herriak egin nahi dituzte. Gauza ugari egiteko asmoa dute, baina hasi berriak dira, eta *"gauzak poliki-poliki egiten ari gara"*, adierazi digute. Udaletik jasotzen dute ekintzak antolatzeko behar duten dirua, baina berezko lokalik ez dutela esan digute: *"Kultur aretoan antolatzen ditugu ekintza guztiak, eta batzuetan beste ekintza bat dagoela eta, ezin gara bertan bildu"*.

Adunako gazteek hartu-eman gutxi dute euren artean, eta gazteen arteko harremanak sendotu

nahi dituzte Belkoain elkarteko kideek, *"jaietan ezezik, urtean zehar ere gure artean hitz egiteko eta ezagutzeko ere"*. Izan ere, asteburuetan eta jai egunetan beste herri batzuetara joaten dira gazteak, eta ondorioz, herritarrekin duten harremana galtzen dute. Neska hauek herrian eta herriko gazteekin egiteko ekimenak antolatu nahi dituzte, eta lanerako gogo handiz daude. Hala ere

kexatu egiten dira gazte askok horrelako ekimenetan parte hartzera ez direlako animatzen.

**Bilerak: hileko lehenengo ostiraletan**

Belkoain elkarteko Ione, Gurutze, Miren, Nerea, Maider, Mari Jose eta Arantxa, hileko lehenengo ostiral guztietan bilduko dira kultur aretoan gaueko hamarretan: herriko gazte guztiak bilertara gonbidatzen dituzte.

## HILERRIAN ARGIA JARRIKO DUTE

**B**erehala hasiko dira hilerrian eta hilerrirako bidean argia jartzen. Gaur egun arte ez zegoen hilerrian argindarrik, eta lan horiekin argindar instalakuntza eta farola ugari jarriko dute. Horrela neguan izan ohi duten arazoa konpondu nahi dute, izan ere hiletak ilundu baino lehen egitera derrigortuta baitzeuden. Aurrerantzean edozein ordutan egin ahal izango dira lur ehorzketak.



• kutxa fundazioa  
• fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

# BENITO

**HARATEGIA  
URDAITEGIA**

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49  
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA

# UR BEROA EGUZKI IZPIEN INDARREZ

**Buruntzako Serorategi etxean jarri dute ura berotzeko sistema berria**

**Eguzki Indar enpresak jarri du orain dela hilabete t'erdi etxeko ura berotzeko sistema termiko berria Serorategin. Terrazan jarritako plaka batzuen bitartez, eta eguzkiaren indarra aprobetxatuz, Serorategin urtean behar duten ur beroaren hiru laurdena izango dute. Epe luzean merkeago, eta zalantzarik gabe, garbiago den sistema hau ez dago oraindik gure artean oso zabalduta; Serorategikoa Andoaingo bakarra da. Bertako etxekoandreak kontaktu digunez, orain arte behintzat oso gustura dago.**

**E**guzki Indar enpresako gerenteak, Jokin Aldazabal larrauldarrak eman dizkigu sistema ekologiko honi buruzko zehaztasunak: hegoaldeari begira terrazan jarritako bi plaka ditu mekanismoak, 3'5m<sup>2</sup>-ko azalera dute guztira, plaka horien azpian urez beteta dauden hodi batzuk daude, eta ura 200 litroko biltegi batean biltzen da. Negutegi sistema baten antzera funtzionatzen du: plakek argiaren berotasuna hartzen dute, hodiak eta barneko ura berotuz, eta aldi berean ez dute berotasuna irteten uzten.


Ura bertan laurogei gradu berotzera irits daiteke. Ne-guan ordea, berotasun gutxiago dagoenez, ura ez da behar bezainbeste berotzen. Baina instalakuntzak badu sistema laguntzailea: gasez, gasoleoz edota argindarrez baliatzen den sistema laguntzaileak ura behar bezainbeste berotutzen du. Udan alderantziz gertatzen da: ura behar baino gehiago berotzen da, eta orduan ura hozteko mekanismoa jarriko da martxan. Horrela ziurtatzen da urte osoan behar bezainbesteko ur beroa etxean.

### **Merkeago eta garbiago**

Sistema honek, oro har, Serorategin urtean behar duten uraren %75a eskainiko die. Begibistako aurrezpena eskaintzen du beraz, alde batetik, eta bestetik, eguzkiak ez du kutsatzen. Bestalde, energia aurreztu beharra dagoen garai hauetan, berebiziko garrantzia du; izan ere eta Jokin Aldazabalek dioen bezala, "Euskal

*Herrian ez daukagu eguzki handirik, baina petroliorik batere ez".*

Gaur egun etxean sistema hau jartzeagatik Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak eskaintzen ditu. Serorategin plakak terrazan jarri dituzten arren, edozein etxetako balkoian edo teilatuan ere jar daitezke. Jokinen iritziz, gure artean sistema termiko hau ez dago oraindik oso zabalduta: Espainiako eremu eguzkitsuetan gehiago ikusten dira, eta industria nagusiena Mediterraneo inguruko herrialdeetan dago: Turkia, Grezia, Italia eta Frantziako hegoaldean, batez ere.



**Eguzki izpien berotasuna jasotzen duten plakak**



**XIKORI**  
**BELARDENDA**

DIETETIKA ZENTRUA  
KONSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

**FRANCISCO**  
**MENDIKUTE**  
**HARATEGIA**



KaleTxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

# 1.500 MILIOI 1996RAKO

## Gobernu taldearen aurrekontuak HB eta EB-IUren ezezkoa eta PPren baiezkoa jaso ditu

*Aurtengo aurrekontua iazkoa baino %14 altuagoa da, eta inbertsioen atala nabarmentzen da, 150 milioko aurrekontuarekin. Bastero kultur gunea eta Allurralde kiroldegia lanen bigarren fasea dira atal honetan proiekturik garrantzitsuenak. Horrez gain, hala ere, 5 milioi onartu dira Karrikako seinalizazio eta semaforizaziorako, beste 5 milioi Kale Nagusia-urbanizatzeko, 51 milioi kanposantuko hilobiak berritzeko, 12 milioi Udaleko sare informatikoa berritzeko, eta besteak beste, 2 milioi zabor ontzi berriak erosteko.*

**A**lkateak adierazi duenez, kultur gunea eta kiroldegiaz gain, lur industrialaren sorrera eta etxe bizitzaren eraikuntza dira gobernu taldearen lehentasunak. Guztira Andoainen 1.100 etxebizitza eraiki daitezkeela adierazi du, eta %60a babes ofizialekoak izango direla. Lur industrialari dagokionez, gestio lanak egiten hasiak omen dira. Besteak beste, langabeziaren aurka eta lana sustatzeko 40 milioiko diru kopurua azpimarratu du. Eta azkenik, euskara batzordeak beste urte batzuetan baino diru gehiago jasoko duela gaineratu du.

### Ezezkoak

HBk aurrekontuen aurka bozkatu du, herriari bizkar emanez eta beste alderdiekin eta herriko taldeekin eztabaidatu gabeko aurrekontuak direla argudiatuz. Bestalde, herritarren oinarrizko beharrei erantzungo dien aurrekontua izan beharrean, itxurakeria eta proiektu erraldoiak oinarri dituen aurrekontua dela adierazi du. Euskalduntzeari ematen zaion diru gutxia eta Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak jasotzen duen diru kopuru handiaren artean zegoen alde salatu du adibidez, hala nola euskal preso politikoaren senideei bidaiak egiteko dirulaguntzarik aurrikusten ez den aurrekontua izatea. Oro har, plangitza eza salatu du.

IU-EBak ere alderdi eta herritarren partehartze eza salatu du, eta oro har, aurrekontuen austeritate eza nabarmendu du. Aurkeztutako hamabi emendakin partzialetatik bakarria onartu du Udalak: Hirugarren Munduari eman beharreko diru ekarpena %0,5era igotzea.

# ZINEMAZ GOZATZEN IKASTEKO IKASTAROA

## Esperanza Luffiego donostiarra da irakaslea

*Hilaren amaieran amaituko da Urigain Kultur Etxean zinemaren mintzairari buruz Esperanza Luffiego donostiarra ematen ari den ikastaroa. Hamabost lagun inguru ari dira parte hartzen, bertakoak nahiz kanpokoak, Zine eta Bideo Eskolako ikasleak nahiz bestelakoak. Ikastaroaren helburua zinemaz gozatzen ikastea da. Horretarako zinemaren mintzairak dauzkan baliabideak ematen dira ezagutzera.*

*Lumière* anai frantsesen garaitik hasi, zinema mutueren, bangoardiakoaren, klasikoaren eta beste aldi batzuen azterketa egin ondoren, *Hollywood* eta egungo zinema produkzio moduak ezagutzeko aukera izan dute ikasleek. Telebistaren sorrerak zinemaren mintzairan duen eraginaz jabetzea eta gaur egun zinema artea baino gehiago, industriari lotuta dagoen sormen lana dela ikusi dute, besteak beste, ikasleek.

Gaur egungo Euskal Herriko zinemaren egoeraz galdetu diogu zinemaren munduan urte asko eman dituen Esperanzari: *"Nire ustez euskal zinemagintza estatu osoko bizienetakoa da. Aldi berean oso zuzendari onak agertu direlako gertatzen da hori. Baina tamalgarria da bertako zuzendariak produkzio bila kanpora joan behar izatea"*. Donostiarraren ustez, produkzio sare industrialak falta da Euskal Herrian.

Amaitzeko, eta ikastaroari dagokionez, Esperanza Luffiego irakasleak adierazi digunez, ikastaroak harreara ona izan du, eta jendeak interes handia agertu du. Hurrego urtean horrelakorik egingo ote den ikusteko dago. Esperanza Luffiego Umietan antolatutako Zinema Aulako irakasleetako bat da.



*Zinemaz gozatzen ikasi*

Taldean egunpasak egiteko aisialdi eta heziketa lekuztat hartzen ditu Udalak Otita eta Olazar, ordenantzaren helburu nagusia bertako ingurunea zaintzea delarik. Eta horregatik, Udalak hondatutako hainbat tresna eta azpiegitura bertutuko ditu aurki. *"Azkenengo bogei urtetan inguru osoa asko hondatu eta eraldatu da Aste Santu eta udako akanpaden eraginez batez ere, -esan digu Maxen Zingunegi Zerbitzu batzordeburuak- eta horregatik beharrezkotzat jo digu ordenantza".* Hala ere, behin eta berriz azpimarratu digu herritarren kontzientzia eta jarrera positiboa behar-beharrezkoak direla inguru horiek babesteko.

### Debekuak

Hona hemen ordenantzak galera-zi dituen iharduera batzuk: edozein eratako zaborra uztea; horretarako egokituta ez dauden lekuetan sua piztea; egurra moztea; kanpinak, karabanak eta antzekoak jartzea; landareak kentzea, ehiza egitea, erletegiak jartzea; motordun ibilgailuekin kirola egitea; antenak, publizitate panelak eta bestelakoak jartzea; erre kara hondakinak botatzea; harriak ubidetik kendu eta lekuz aldatzea; gehiegizko zarata egitea eta abar.

Bestalde, gamadua larrera eramateko, zuhaitzak mozteko, arrantza egiteko, bestelako landareak landatzeko, edota azpiegitura berria jartzeko Udalaren baimena beharko da. Azaldutako arauak betetzen ez dituztenei 1.000-100.000 pezeta bitarteko isunak jarriko zaizkie.


# OTITA ETA OLAZARREKO IHARDUERA ARAUTUA

## Kanpatzea debekatuta dago

*Udalak Otita eta Olazar parkeetan aurrerantzean egin ahal izango diren zenbait ekintza arautu ditu bakarren batzuk debekatuz eta Udalaren betebeherrak finkatuz. Bi arrazoik bultzatu ditu horretara: batetik, orain arte jendearen iharduerak, akanpadak batez ere, ingurunean eragin duen kaltea, eta bestetik parkeek behar dituzten azpiegiturak ziurtatzea. Bertako ekintzarik kaltegarriena akanpada dela kontuan hartuz, Udalak Diputazioak horretarako azpiegitura zehatza sor dezakeela aurrirakosten du gainera, batez ere Leitzarango hainbat eremu biotopo babestu izendatu eta bertan jendearen presentzia ugaltu denetik. Azpiegitura berri horrek Leizaran barrena beste akanpada gune indiskriminatu batzuen sorrera eragotziko lukeela pentsatzen dute udal teknikariek.*



Otitako parkea Aste Santuan



**BORDA**  
*Jatetxea*  
 A N D O A I N



**ONDARRETA**  
 TABERNA

*Plater konbinatuak*  
*Ogitartekoak*  
*Pintxoak*

Arkume eta txerrikume erreak enkarguz

Ondarreta 9 behea ☎ 59 36 27 ANDOAIN



CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

EGUZKITAKO  
 BETAURREKOTAN  
 AUKERA ZABALA

Kalenagusia 9 -20140 ANDOAIN  
 ☎ 59 18 17



# ASTE KULTURALA, MAIATZAK 21-25

**Ekintza berriak antolatuko dituzte aurten**

*Ikuskizun ugari antolatu dira urtez urte egin diren Aste Kultural guztietan, eta aurtengoan ere, ezin atzera gelditu. Asteari hitzaldi batekin emango diote hasiera maiatzaren 21ean, eta kantu afari herrikoiarekin amaituko dute 25ean.*

Aste Kulturala hasi aurretik, hilaren hemezortzian, haurren ziklo kross lasterketa egingo dute herrian. Gainera, tximindulari-tza taldeetako haurrez gain, herriko haurrek ere lasterketan parte har dezakete. Aste Kulturala berriz, hogeita batetan hasiko da, astelehenean. Hitzaldi batekin emango dio hasiera asteari, eta asteazkenean nahiz ostegunean ere, hitzaldiak egingo dira Kultur Etxean, arratsaldeko zortzietan. Asteari, "Los secretos de los glaciares Chamoniá" izenburua duen ikusentzunezko saioa eskainiko du Nekane Intxausti mendizaleak. Asteazkenean berriz, "Ejercicioari zerbitzuzeko deiaren aurtean dauden aukerak" izenburupean, intsumisioari nahiz soldaduskari buruz hitz egingo du



*Kantu afari herrikoa egingo dute*

Mikel Iradi andoaindarrak. Azken hitzaldian, Karlos Irazu larrauldarrak Boliviara egin duen bidaiari buruzko kontuak eta diapositibak eskainiko ditu. Hitzaldi hau, "Urrutiko hurralde eta kulturak" izenburupean urtean zehar antolatuko diren hitzaldietako bat izango da.

**Ostiral gauean Maixa ta Ixiar**

Ostirala 24ean Tximax txotxongilo taldeak haurrentzako bi antzezlan egingo ditu. Gauean berriz, gazte eta nagusientzat, Maixa ta Ixiar laukoteak

berandu arteko dantzaldia eskainiko du. Azkeneko egunean, larunbata 25ean, alegia, kantu afari herrikoa egingo dute. Larramendi Kultur Bazkunako kideak eta Udala, kantu afarian banatuko duten kantu bilduma prestatzen ari dira. Izan ere, behin afaldu ondoren bilduma banatuko dute eta kantatzeari ekingo diote bertan bildutakoek. Ahalik eta herritar gehien biltzea nahi dute, eta beraz, afaria nahikoa merkea jarriko dutela aurreratu digute.

**AURRERA**  
**TABERNA**  
Girorik ederrena gazteriarentzat!!  
**ZIZURKIL**

**ITAMAR**  
Nagusia 28 - ☎ 69 39 31 - BILLABONA  
OPARIAK - BITXIAK - MODA  
**SOLARIUM SERBITZUA**  
ZURE AZALA PREST UDARAKO



**Andoaingo XIV. neguko txapelketan**

**TXAPELDUN**  
*ZUTIK: Joxe, Jon, Asier, Matias, Juan Antonio, Fran, Josean eta Inaxio.*  
*ESERITA: Xanti, Angel, Josu, Iñaki, Josetxo, Imanol.*

Arg: FOTO TRUCHUELO Billabona

# PRESOAK BISITAZERA JOATEKO DIRUA

**Bidean, EAJ-PNV eta HBk alde bozkatu zuten; EA abstenitu egin zen**

**Udalak hilean bisita bat egiteko dirua emango die preso bakoitzaren senideei. Diru hori jasotzeko udaletxean aurkeztu beharko dituzte bisita egiteko gastu duten diruaren ziurtagiriak. Gastu horiek dispersioak iraun bitartean bakkrik ordainduko dira.**

**H**erri Batasuna eta Senideak taldea aspalditik ari ziren Udalarari presoan bisitak ordaintzeko dirulaguntza eske. HBk bi milioi pezetako aurrekontua eskatzen zuten, eta Senideak elkarteak aldiz, bisitak egitea kostatzen den batzbestekoa, 850 lagun sinadurak aurkeztu zituen, gastu horiek ordaintzen laguntzeko eskatuz. Azkenean, aste batzuk igaro ondoren, EAJ-PNV eta Bidean alderdiek aurkeztu zuten Udalak onartu herri duen proposamena, "Udalak dispersioaren aurkako mozioa onartu zuelako eta koerenteak izateko". Ondorioz, familia bakoitzak hilabetero egiten duten bidaietako bat ordainduko du Udalak.

HBk baieztako kritikoa eman zion proposamenari, "salto politiko garrantzitsua dela iruditzen baitzaigut". Baina Udalaren erantzukizun osoa horrela ez dela betetzen eta senideen eskubide guztiak lortu arte borrokan jarraituko dutela adierazi dute. EA berriz, abstenitu egin zen. Udaleko aurrekontuen bozketan ere abstenitu egin zelako. Mikel Garmendia EAko zinegotziak, senitartekoei dirua Ongizateko batzordearen bidez eman behar zitaiela esan zuen: beharrean dauden familiei, alegia. Bidaiak guztiak

zergatik ez diren ordainduko galdetu ondoren, "salto politiko handi baten bidez, EAJ-PNV eta Bidean alderdiak borroka armaturen alde daudela ematen du" gaineratu zuen. Adierazpen horren aurrean, EAJ-PNVko Xabier Zabala zinegotziak, proposamena injustizia sozial bati aurre egiteko dela azaldu zuen, eta bide batez, Udalak dispersioaren ardura ez duela baina horren ondorioak leundu ditzakeela azaldu zuen. Bidean-eko Eduarde Labordek herriko beste hainbat injustiziei bezala, aurre egiteko neurriak hartu behar direla esan zuen, "nabiz eta bidaiak guztiak ez

ordaindu". HBk berriz, EA dispersioaren kolaboratzailea izaten jarraitzen duela salatu zuen.

## Udal batzordea

Presoen dispersioaren aurka eta presoak Euskal Herrira ekartzeko osatu da Billabonan udal komisio berezia. Alderdi bakoitzeko ordezkari bana, Senideak elkarteko ordezkariak, eta herriko talde ezberdinetako ordezkariak dira bertako kide. Iaz udalak onartutako mozioa gizarteratzea, mozio bera onartu duten beste Udalekin biltzea eta sinadura bilketa bati ekin dio udal batzordeak, besteak beste.



**Herritar batzuk udal areto nagusian**



Agustin Leitza, 11 - ☎ 300604  
20140 **ANDOAIN**

## Loitzo

LANPARAK    ALTZARIAK  
KOLTXOIAK    OPARIAK

Errota kalea, 3 - ☎ 69 21 35 **BILLABONA**

## SOTO

elektrizitatea

- ELEKTROGAILUAK
- MATERIAL ELEKTRIKOA

Santiago kalea z.g **BILLABONA**  
☎ 69 11 73

## Ageltseritza

### USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa  
Tel. 69 35 60 - 69 34 35  
20150 **ZIZURKIL (Gipuzkoa)**

## Mimos

HAUR ETA GAZTEENTZAKO MODA  
JAIOBERRIARENTZAKO  
BEHAR DEN GUZTIA

**BANATZAILEAK:**

- BEBE CONFORT
- JANE •ARRUE
- INGLESINA

Kale Nagusia, 29 - **BILLABONA**

# GUREA ARETOAN ERAKUSKETA IKUSGAI

**Joxean Iglesias: "Haurrek margotzen duten moduan egiten ditut artelanak"**

*Hogeita bost urte ditu Joxean Iglesias lasartarrak. Arte Ederretako ikasketak burutzen ari da artista gazte hau, eta grabatuak egiteko moduak ikasten ditu bereziki. Umetatik du margotzeko afizioa, eta egun, margoak egiteaz gain, argazkiak, fotogramak eta beste zenbait lan egiten ditu. Billabonako*

*erakusketa bere hirugarren esposizioa da. Erakusketa ikusi nahi baduzue, maiatza bukaera arte izango duzue Gurea zinemako aretoan ikusgai: ostegun eta ostiraletan arratsaldeko 18etatik 20etara, eta larunbat eta igandetan berriz, eguerdiko 12etatik 14etara.*



**Ondo sentitzeko margotzen du Joxan Iglestasek**

**Ai: Zein artelan mota ikus daitezke erakusketan?**

**J.I.:** Argazkiak, kolorezko fotokopiak, fotogramak, margoak eta antzeko gauza gehiago daude erakusketan. Artelan ezberdinak tartekatuta ditut, esposizioa pisutsua izan ez dadin. Duela pare bat urtetik hona egindako lanak dira guztiak.

**Ai: Teknika ezberdinak erabiltzen dituzu, beraz.**

**J.I.:** Bai, hala da. Kolorezko fotokopiak adibidez, argazki baten fotokopiak dira. Argazkiaren bertsiokak dira, eta argazkiei gauzak gehitu edota kolorea aldatzen diet fotokopiaren bitartez. Irudi irrealagoa, indartsuagoa eta finean, nere gustoko zerbait egitea lortzen dut. Lana fotokopiadarak egiten badu ere, garrantzitsuen biruan dudana ideia gauzatzea da.

Kalean topatzen ditudan gauza bitxiak argazkiak egiten ditut, lekuz kanpo dauden gauzei, alegia. Askotan argazkiak ez daude batere ondo enfokaturik edota ez dute nabikoa argirik, baina hori ez da garrantzitsua: argazkiaren berezkitasunak du garrantzia. Argazkigintza egiteko era asko daude, eta egunero aurkitzen dituz argazkiak egiteko modu berriren bat.

**Ai: Zein dira zure artelanek ikutzen dituzten gaiak?**

**J.I.:** Askok eta askok ez dute inolako esanahirik: arreta deitu didaten gauzak egiten ditut. Azkenaldi bonetan ordea, zabartzaroz dibarduten argazki asko atera ditut. Bizitza eta heriotza gaiak ere islatu ditut artelan batean edo bestean.

**Ai: Nola egiten dituzu lanak? Zein baliabide erabiltzen dituzu?**

**J.I.:** Musika batik bat. Oso garrantzitsua da bai-

*tzak gustoko duen musika entzutea. Bestalde, haurrek margotzen duten bezala egiten ditut lanak: barruan dudana ateratzen dut, estetikoki lan hori polita izango ote den ala ez erreparatu gabe.*

**Ai: Jende asko etorri al da erakusketa ikustera? Hurrera ona izan al du?**

**J.I.:** Elizaren ondoan dago aretoa, eta beraz, jende nagusia nabikoa etorri da. Herriko jendeak, beharbada, ez du oso ondo ulertzen erakusketa, eta gainera, baliteke artelanak ez gustatzea. Baina ni oso gustura sentitzen naiz jende horrek une batez nire artelan bat ikusi dutelako, nabiz eta gerora ez gogoratu. ■

## LOATZO IRRATIKO PROGRAMAZIOA FM 107.5ean

### ASTELEHENA

- 20.00: "Bidai shop" (bidaiak)
- 21.00: "No pasan los años" (boleroak)
- 21.30: "Aipua kantuez" (Aipua eta euskal musika)
- 2.00: "Bemolekin" (maketak, diska berriak)

### ASTEARTEA

- 20.00: "Jam Session" (zinemarako zozketa)
- 21.00: "Hika mika" (magazine)
- 21.30: "El bazar" (barietateak)
- 22.00: "Jazz"

### ASTEAZKENA

- 20.00: "Kultur Sound" (Reggae-Ska)
- 21.00: "Zinema paradiso" (zinema eta zozketak)
- 22.00: "Zalantzarik gabe" (debatea)

### OSTEGUNA

- 20.00: "Haran beltzarana" (Blues eta soul)
- 21.00: "Euskal musika"
- 22.00: "Jazz supreme"

### OSTIRALA

- 20.00: "Hasta que llegó la hora" (kultur agenda)
- 20.30: "Entre bastidores" (barietateak)
- 21.00: "Impacto" (Bakalao)
- 22.00: "La fiesta del terror" (disco musika)

### LARUNBAT

- 10.00: "Mugi gaitezen" (kultur agenda)
- 11.00: "Musika zaparrada" (Musika eta elkarriketak)
- 12.00: "Kirol plast" (kirolak)



# JUBILATUEN ETXEKO TABERNA ENKANTEAN

## Ekainerako martxan jarri nahi dute

**Jubilatuen etxeiko taberna eta jatetxea enkantean jarri du Udalak. Hori ustiatzeaz gain, jubilatuen etxeiko garbiketa eta Kultur Etxeko giltzaren ardura izango du hartzaileak. Tabernako langileek euskara jakitea baloratuko dute oraingo honetan berrikuntza gisa. Besteak beste, hartzaileak taberna astean egun batean itxi egingo du, eta gainera, opor egun batzuk hartzeko eskubidea izango du.**

Taberna bost urtetarako eskainiko zaio hartzaileari, eta jatetxeak nahiz tabernak beharrezkoak duen tresneria eta baliabideak utziko zaizkio. Hala ere, gerora beharko dituen tresneria berria eta garbigaiak bere kontura izango dira. Urtean, gutxienez, milio erdiko kopurua ordaindu beharko dio eskatzaileak Udalari.

### Baldintzak

Hartzaileak taberna goizeko hamarretatik gaueko hamarrak arte ireki beharko du, eta gainera, gutzita garbitu beharko du. Jubilatuen etxearen ardura izango du, eta Kultur Etxeko

giltza edukiko du egoitza itsita dagoen bitartean herritarren batek behar badu. Bestalde, tabernan ezingo du ez kartelik jarri edota lanik egin Udalaren baitimenik gabe. Gainera, makina txanponjaleak eta antzekoak ezingo ditu jarri. Udalak baldintza horiek guztiak betetzen direla kontrolatuko du. Beteko ez balira, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

### Adjudikazioa

Interesatuak udaletxean eman beharko dute izena, eta azken eguna, Gipuzkoako Agiri Ofizialean baldintzak agertu eta hogeita seigarren eguna izango da. Bi kartazal itxietan diru


proposamena eta agiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak: batean, diru proposamena eta bere N.A.a, eta bestean, horrelako lanetan esperientzia izan duela adierazten duten agiriak eta beste ziurtagiriak. Tabernetan, jubilatuen etxeetan eta antzeko lanetan edukitako esperientzia, langabezian egotea, Zizurkil inguruan bizitzea eta euskara jakitea baloratuko dute, besteak beste.

### Jubilatuen txokoa

Elizpe jubilatuen elkarteak eskaera batzuk egin zizkion Udalari, eta taberna zein jubilatuen txokoa itsita dagoen bitartean, eskaera horiek gauzatu ote daitezkeen ari da Udala aztertzen. Bulego bat jartzea, ileapaindegi bat egitea, eta leihoak handitzea nahiz taberna eta jubilatuen txokoa bereizten duen paretak botatzea eskatzen dute jubilatuek. Udala lanen zenbateko kostoa eta beharrak zeintzu diren ari da aztertzen.



**Ekintza berriak antolatu nahi dituzte**



AHOLKULARITZA  
ARTEZKARITZA

## IRAOLA


ENPRESEN AHOLKULARITZA:  
FISKALA, DIRUKONTUENA,  
JURIDIKOA, LABORALA,  
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37

Tif. 69 27 63

Fax 69 27 74

20150 BILLABONA



## EKO-TOLOSA FRUITATEGIAK

Kale Nagusia, 3 BILLABONA  
Kale Nagusia, 33 ANDOAIN

**NEW LINES**

Aseguruak ARGENTARIA

*Carolina Pardo-Jover*

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Fasa 69 37 34

ZIZURKIL

**075A39**

Etxebizitzen salerosketa

Kale berria, 58 - 69 08 94  
BILLABONA

Andoain

# TRUCHAS ERREKA HAZTEGIA

20 urte Leitzarán erreka-aren ertzean


Hiru tamainako amorrainak hazten dituzte: ekoizpen osoaren %25a 250 gramoko amorrainak dira; %10a 3 kilokoak; eta produkzio handiena, 290 tona urtean, kilo inguruko amorraina. Azken hau bi eratarik merkaturatzen dute: xerratan eta osorik. Hazteko espazio jakin bat, babesa eta pentsu berezia ematen zaie haztegian amorrainei. Amorrain txikiak urtebete behar izaten du hazteko, eta hiru kilokoak berriz, bi urte, gutxienez.

Truchas Erreka-k amorrain freskoa banatzen du Iparraldeko hainbat hiriburu eta portuetara, eta baita Katalunia, Madril eta Euskal Herriko gunerik handienetara ere. Kamioiak arratsaldean irteten dira, eta goizalderako beti banatzen dute amorrain freskoa. Haztegian argindarra erabiltzen dute amorrainak akabatzeko.

### Kontsumoa

Mikel Arrieta, enpresako gerentseak ezagutzera eman digunez, Espainian nahiz Euskal Herrian amorrain kontsumoa nabikoa txikia da. Espainian urtean pertsonako bi amorrain kontsumitzen dira; Euskal Autonomi Erkidegoan erdia besterik ez. Gure artean arrain zuriak beti izan du estimazio handiagoa. Nafarroan berriz, amorrain gehiago kontsumitzen da, eta bertan haztegiak ugariagoak dira. Tokian tokiko ohiturak eragin handia dute. Leon esate baterako, Espainia mailan gehien kontsumitzen den lurraldeetakoa da.

1976. urtean eraiki zuten haztegia. Hasieran Otita inguruan hazten zituzten amorrainak arrautzak ekarrira. Gaur egun Soriako haztegi batetik ekartzen dituzte hamar zentimetroko amorrainak, eta hiru kilo bitarteko arrainak hazten dituzte. Milioi bat amorrain inguru hazten dute Leitzarango haztegian. Espainian urteko pertsona bakoitzak bi amorrain besterik ez ditu jaten; Euskal Komunitate Elkartean are gutxiago: urtean erdia besterik ez.




20 urte Andoainean

*“Betiko arraindegiak ez dira horren berrikuntza zaleak”*

Hala ere, kontsumoa bultzatu nahian enpresako kideak eskaintza berriak egiten saiatu dira beti: orain dela urte batzuk hasi ziren amorraina xerratan eskaintzen: “arrain bezurrek batzuetan jendearek atzera eginarazten zela konturatu gi-

nen”, dio Mikelek. Hala ere, amorrain xerrak, denda handitan aurkitzen dira normalean; betiko arraindegiak ez omen dira horren berrikuntza zaleak, bezeroek ere betidanik ezagutu duten arraina baitute gogoko.

Haztegiak Leitzarán errekan daukan eraginaz galdetu diogu Mikel Arrietari: “Gehienez ere urtean arrainak kaka batzuk, eta pentsu zati batzuk aurki daitezke, baina ez bestelako gai toxikorik. Hala ere, filtro sistema iraunkor batzuk jarri nahian gabiltza, aurki araudi berria jarriko baita indarrean”.



LANBIDE EZBERDINEN  
ARTEKO KOORDINAKETAK

---

**GASA ETA BEROGINTZA**

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44  
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGLTSARITZA



**GOSARIAK - APERITIBOAK  
BILARRA**

**GIRO EDERRA**

Kale Nagusia, 20 - ANDOAIN

Larraul

# ANTTON AMONARRRIZ GOGORATUZ

## Orain dela hilabete hil zen kanposantuan lanean ari zela

*Heriotzak lanean aurkitu zuen Gorotze baserriko semea. Larunbat arratsaldea zen, Antton Amonarriz, Larraulgo alkatea, kanposantuko arbolak mozten ari zen beste herritar batzuekin batera, eta zorigaitzeko istripu batek eragin zion ia bat-bateko*

*heriotza. Berrogei urte bete berriak zituen, ezkondua zen, eta hiru neskatila umezurtz uzteaz gain, herri oso bat utzi du umezurtz, Antton Amonarrizek azkenengo bost urteotan zuzendu baitzuen udaletxeko, eta hein handian, herriko martxa.*


Udaletxeko lan gehientsuenak zuzentzen zituen, beste zinegotziekin batera. Eta azkenengo urteotan herriari bestelako bizitza eman zioten proiektuak aurrera ateratzeko gauza izan zen. Oso epe motzean larrauldarrek gauzatuta ikusiko dituzten beste hainbat ekimen ere Anttonek berak zuzen-zuzenean landutakoak dira: etxeak txukuntzea, baserriko tresneria eta altzarien museo txikia egitea, ibilbideak egokitzea, karobiak garbitzea, urbanizazio txukun bat egitea, baserri bideak garbitzea, eta besteak beste. Larraul Gipuzkoa osoan ezagun egin duen elizako erre-  
taula ospetsuaren egokitzapena.

Udaletxeko lanak ez zituen ordea, bulegoan sartuta egiten: Antton ekintza zalea zen, eta langile fina. Herrian inon lan egin behar bazen, hantxe zegoen Antton, edozein ordu zela ere, beste inor baino lehenago. Alkate izateak, bizilagunen artean eredu izatera ere eramane zuela iruditzen zaigu, horregatik beti zegoen herriaren alde lan egiteko prest. Auzolanean nabarmendu zen beti.

Antton Amonarrizek egunak luzatzen zekiela ematen zuen, eta lantegian, baserrian eta udaletxean lan gogor egiteaz gain, elizako lanak betetzen zituen hutsik egin gabe. Antton gizon fededuna eta elizkoia zen, eta bere esanetan edozein kristauren betebeharra zen elizako gauzetaz arduratzea, eta horretan ere eredu emateko paregabea izan da Antton. Igandeko mezetarako eliza lorez apaindu eta txukuntzeaz gain, irakurketak prestatzen zituen, eta erlojuaz eta kanpaiez arduratzen zen.

### Bost urte alkate

Bost urte egin zituen Anttonek alkate, bost urte oparo. Eta herriak azkenengo udal hauteskundeetan beste behin beregan konfidantza handia zuela erakutsi zuen boto gehienak emanez. Izan ere Anttonek beti izan zuen harre-



man estua herritar hurkoekin, beren kezka eta arazoak entzuteko eta irtenbidea emateko beti prest zegoen.

Bere aldamenean lan egin zutenen esanetan, Anttonen lorpenik handienak herritarrek biltzea izan da, baten batek esan digun bezala "artzain batek bezala, ardiak artaldean biltzea": larrauldarrek, herri bateko partaide sentiaraztea, hori baitzen alkatearen kezkarik nagusiena. Eta guztien esanetan, poliki-poliki gauzatzen ari zen asmoa zen.

Izan ere Anttonek biziki maite zuen bere herria, bihotzez sentitzen zuen, eta bere alde apostua egina zuen. Bultzatutako proiektu guztiek zuten herria zuzpertzeko helburu.

Alkate izendatu zuten lehenengo egunean adierazi zuen Udalak ez zuela gai politikorik eztabaidatuko. Garbi ikusten zuen politikak horren herri txikian bizilagunak bereizteko baino ez zuela balioko. Gizon konprometitua zen ordea, Antton. Liberala, beste batzuk esan dutenaren arabera, lagun hurkoaren ideiak

errespetatzen zekiena. Eta gauza guztien gainetik, bakezalea.

Irekia, temple onekoa, jendearekin traturako paregabea, hitzekoa, konprometitua, langilea, horietatik beste, Antton Amonarriz deskribatzeko eskatutakoan aipatu dizkiguten berezitasunak. "Mundu bonetan inork zerua merezi badu, Antton da horixe". Pako Trekuk ez du beste hitzik aurkitu Anttonen izaera adierazteko.

"Hark berea konplitu zuen gure artean -esan digu-, ongi konplitu ere, guri dagokigu orain baren arrastoari jarraituz, Larraulen alde lanean jarraitzea". Zalantzarik gabe, Larraulak aspaldi bizi izan duen zorigaitzik handienetakoa izan da Antton Amonarrizen heriotza. Hala ere, herritarren laguntzaz aurrera egiteko prest dago Udala. Anttonen nahia izango zen eta, larrauldar guztiak, bat egin da, herriaren alde lanean aritzea.



## HITZEKO GIZONA; LAGUN ONA

**M**undu honetan, bizimodua gero eta zailago bihurtzen ari den momentuan, badira oraindik ere, gauzak errazten eta leuntzen saiatzen diren fenomeno bakarti batzuk. Bitxi hauek ezkutu egon ohi dira gehienetan, eta aurkitzea ez da erraza izaten. Horrelako bat topatu nuen nik Antton aurkitu nuenean.

Bere izaerak bereizten zuen besteengandik: hitz gutxikoa, eta bere ideiak ekintzen bitartez adierazten zituen, entzule ona, konpromezuzkoa, hitzekoa, so-

seguz bete, lagun ona, lanerako beti prest, bitartekari aproposa, zuen guztia eta zen guztia besteengantzen zekiena.... eta hainbat eta hainbat berezitasunek egiten zuten bitxi berezi Antton.

Baina oraingoan ere, askotan ohi den bezala, falta denean konturatu gara bere balioaz. Egin zuen guztiagatik eskerrak emateko, gure artean utzitako ereduari jarraitzea beste modu hobeagorik ez dago.

*Mari Juli Azkue*

## ESKUZABAL ETA LAGUNKOI

**B**adira ia hiru urte baino gehiago Larramendi Kultur Bazkunak Larraulgo Udalarari eskualdeko aldizkaria argitara ematea proposatu zionetik. Hasiera-hasieratik iruditu zitzaien herriko bizitza zaindu eta zuzpertzeko eta herritarrek elkarren berri izateko tresna egokia. Geroztik, Larraulera behin eta berriro albiste bila jo dugunok ongi baino hobeto dakigu Anttonek aldizkariarekiko beti agertu zuen interesa eta bere alde egindako lana.

Hilabetero Larraulgo orrialdea betetzea hasieran uste baino askoz ere errazago gertatu zaigu guztioi, izan ere Anttonek beti aurkitzen zuen bere bizilagunen interesa piz zezakeen albisteak, helarazi beharreko informazioa edota egin beharreko oharra, Edozein ordutan lantegira, etxera edota udaletxera deituta, beti gure deia eta eskaerei erantzuteko pronto agertzen zen. Eta hemendik esan beharra daukagu, bi urte berditan hamaika deiri erantzun behar izan ziola.

Gure eskaerak inoiz hutsik egin gabe bete izanagatik, gure lanean horrenbeste lagundu izanagatik, biziki maite zenuen Larraulgo ateak irekitzeagatik es-

kerrik asko, Antton. Baina eskerrik asko, batez ere, zurekin harremanetan eskuzabaltasunaren, zintzotasunaren eta adiskidetasunaren esanahia gogorarazi diguzulako.

*AIURRI aldizkariako erredakzioa*



# HERRIEN AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA

**"Ortzi", Politika Plazara saioaren goidatu**

Andoaingo EAJ-PNVk antolatutako Politika Plaza hitzaldi egitarauari jarraipena emanez, Francisco Letamendia, "Ortzi", izan zen Kultur Etxean herrien autodeterminazio eskubideari buruz hitz egiten. 52 urteko donostiarraren ibilbidea irakaskuntzan, ikerketa munduan nahiz politikagintzan oso oparoa da: Bartzelonan eta Parisen egin zituen zuzenbide ikasketak. Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle da. Pariseko

Unibertsitatean ere eskola eman izan du, hala nola UNEDen. Politika munduan Burgoseko auzian hasi zen 1971. urtean euskal presoak defendatzen. EIAko militatea, EEko diputatu 1977an, 1978an HBko kide, eta handik urtebetera diputatu. 1983. urtean utzi zuen HB, eta bi urte geroago politikagintza aktiboa. Argitalpen ugari ditu euskal nazionalismoaz, borroka armatuaz, hala nola autodeterminazio eskubideaz.



Autodeterminazio eskubidearen garapen historikoa azaldu zuen

**Ai: Autodeterminazio eskubideak zein printzipio ditu oinarritzat?**

**Ortzi:** Frantziar iraultza garaian aldarrikatu zen lehenengoz autodeterminazio eskubidea. Hiru pentsamendu korronte ditu oinarriak: bat, gizartea berari osatzen duten gizakien arteko bitzarmenaren ondorioz sortzen da, eta erabaki guztiz arrazionala da; bi, gizakiak bere bizitza gobernatzeko bere buruari lege batzuk ezartzen dizkio, eta ondorioz gizaki moralak biburtzen da; eta hiru, kultura amankomuna duten estaturik ga-

beko herriek, politikoki antolatzeko eskubidea dute. Hiru ideia banek XIX. mendean guztiz aurrerakotzat hartzen ziren, eta gebiengoak onartzen zituen.

**"Estatu handiek beti erabili dute autodeterminazio eskubidea beren interesean"**

**Ai: Jatorrizko ideia-interpretazio ezberdinak egon dira, ordea.**

**Ortzi:** Aipaturiko ideietan oinarrituta bi ideia nagusi sortu ziren: bata, frantziarrek indarrean jarri zutena, hau da autodeterminazio eskubidea gizakiak estatu menperatzailearen aurka egiteko duen eskubidea; eta bi, alemaniarrena, hau da, estaturik gabeko nazioen aldarrikapena jaso izan duen ideia. Hala ere, nire ustez abertzaleok bi printzipioak uztartu beharoko genituzke: gure herriaren autodeterminazio eskubidea, eta bertan bizi diren gizakien eskubideen errespetoa.

**Ai: Eta zer gertatu da XX. mendean zehar?**

**Ortzi:** I. Mundu Gerran estatu handiek, garaileek, autodeterminazio eskubidearekiko agertu zuten jarrera guztiz zintikoa izan zen. Europa ekialdeko inperio handietan bazi ziren eskubidea gauzatzen, baina interes buntsagatik, areriotzat zituzten inperio handiak desegiteko. Mendebaldeko estaturik gabeko herrien autodeterminazio eskubideari buruz, Euskal Herriaz esate baterako, ez zen aipamenik txikiena ere egin. Sobietar Batasunako iraultza eta ideologia leninistaren ezarpenak ere kontraesan ugari eraku-tsi zituen. Autodeterminazio eskubidea bitzez onartu arren,



praktikan alderdi komunistaren zuzendaritza estatu mailan mantentzearen beharra ikusi, eta edozein altxamendu nazionalista bortizki zapaldu zuen.

**Ai: II. Mundu Gerraren ondoren ere aldaketak izan ziren.**

**Ortzi:** Bai, garai-leen artean EBB eta SBA nagusitu ziren, eta hauek ere interes hutsagatik autodeterminazio eskubidea ezartzen hasi ziren gainbehera zetozen estatu handien kolonietan. Frantzia eta Ingalaterraren kolonietan, alegia. Hau da autodeterminazio eskubidea praktikan itsasoz bestaldeko koloniei bakarrik aitortu zitzairen. Eta beste behin, mutzin egin zitzairen Europa mendebaldeko nazio txikien aldarrikapenei.

## **“Euskaldunon gehiengoak ez du konstituzioa onartu; eta auzi hori konpontzeke dago”**

**Ai: Espainian noiz hasten da autodeterminazio eskubideaz hitz egiten?**

**Ortzi:** Diktaduraren amaieran hasten da berriro gaiaz hitz egiten. Baina Espainian ez da diktaduratik demokraziara hausturarik egin, eta aldarrikapen batzuk basieratik jotzen ziren ezinezkotzat. Euskal Herria, Katalunia eta Galiziako autodeterminazio eskubidea esaterako. Eskuinak dezentralizazio administratiboa besterik ez zuen nahi. Sozialistek eta komunistek, bat egin da, federalismoaren ideia baztertu zuten, eta autonomien estatuaren alde egin zuten apostu. Autonomi



“Ortzi” nabikoa baikor agertu zen etorkizunari begira

estatutuak ordea, konstituzioaren baitan jarriko dira, eta Espainiako berriaren eskubideak baino ez dira aitortuko.

**Ai: Euskaldunek autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen jarraitu dute.**

**Ortzi:** Nazionalismo historikoak batetik, EAJ-PNVk, eta ezker abertzaleak bestetik, EEk, lehenengo gortetan subiranotasunaren aldarrikapena egin zuen bi bide ezberdinetatik. Baina ez ziren onartu. EAJ-PNV eskubide historikoen berreskurapenean oinarritu zen, eta EEk autodeterminazio eskubidea eskatu zuen.

**Ai: Nola proposatzen zenuen orduan autodeterminazio eskubidea gauzatzea?**

**Ortzi:** Euskal legebiltzarraren laurdenak eskatu eta gebiengoan onartu ondoren, erreferendum birtartez onetsi beharke zuten herriarrek, herrialde bakoitzean ge-

biengo osoa lortuz. Eta lortu ezean, bi urtean behin erreferendum errepikatzea proposatzen genuen. Baina ez eskuin alderdi espainiarrek, ez ezkerrek ez zuten onartu. Eta ondorioz, euskal herritarren gebiengoak ez zuten konstituzio espainiarra ere onartu. Horregatik Euskal Herriaren eta estatuaren arteko edozein konponbidek auzi bura hartu beharke luke kontuan.

## **“Nazionalistok ez dugu sentimendu nazional amankomunik sortzen jakin”**

**Ai: Gaur egun zein aukera daude autodeterminazio**

**eskubidea gauzatzeke?**


**Ortzi:** Nire ustez, ETak borroka armatua utzi beharke luke, eta gebiengo osatzen duten alderdi nazionalistek programa amankomuna aurkeztu. Bestalde, garbi dago gaur egun erreferendum eginez gero, Araba eta Nafarroan ez genukeela baiezkorik lortuko, eta Bizkaian ozta-ozta. Euskal nazionalistok ez dugu sentimendu nazionalik sortzen jakin, herrialde bakoitzak dauzkan ezberdintasun kulturalak kontuan hartuz. Azkenik, aipatzekoa da horrelako auziak egon diren herri guztietan eskuinak eman diola arazoari beti konponbidea. Espainia Europear batasunean sartu zenetik, gure herriaren subiranotasuna gauzatzeke aukera gebiengo daudelakoan nago. Gaur egun ez dute uste militarren tankeen beldurrik izan behar dugunik, bala ere arazoa etxean bertan daukagu; ez auzoan.

Andoain

# XABIER EGAÑA, MARGOLARI ETA ESKULTORE

## Gizakia dute gaitzat bere lanik gehienek

**Bost urtetik hona La Salle-Berrozpe ikastetxeko adierazpen artistiko irakaslea da Xabier Egaña bizkaitarra. Lehenago ere hezkuntzan luze aritutakoa da, eta gazte-gaztetatik pintura eta eskultura ditu zaletasun, eta besteak beste, hausnarketa eta adierazpen bide. 60eko hamarkadan Jorge Oteiza, eta Gaur, Euskal Arte Garaikide Eskolako kideekin Arantzazuko basilikan lan egiteko zoriona izan zuen. Esperientzia hark arrasto sakona utzi zuen artistaren sormen lanaren bilakaeran. Geroztik ere etengabe lan egin du Euskal Herrian nahiz atzerrian, irakaskuntza eta sormen lana, batzuetan neke handiz, tartekatuz.**



**Ikastetxearen 50. urtemuga ospatzeko eginiko eskultura**

*"Ongi marrazten duen mutil kozkor borietako bat nintzen", horrelaxe azaldu digu bere margolari lanaren abiapuntua. Umetako lan horiek aintzakotzat hartu zituen laguna aurkitu zuen, eta hark animatuta jarraitu zuen lanean: "arrakastata lortzen den arlo borretan ikasten da bakarrik: porrot egiten den borretan ez da ezer ikasten", hitz horiekin gogoratu nahi izan du horren gazte pintura egiten jarraitzea animatu zuen lagun hura.*

Urteek aurrera egin zuten, eta 60eko hamarkadan Jorge Oteiza eta Gaur taldeko beste hainbat kideekin lan egiteko aukera izan zuen Arantzazuko basilikan. Oso espe-

rientzia garrantzitsua izan zen hura, bere esanetan, ez bakarrik arteari dagokionez. Euskal Herriaz, euskal kulturaz eta gizakiari buruz barneratu ahal izan zuenagatik baizik. *"Jorge Oteizak amets eginarazten du -halaxe deskribatu ditu artista ezagunarekin bizi izan zuen esperientzia- berak azaldu zigun artea ia erlijio mundua adinekora zela, eta bertan bibotz eta arima barneratzea merezi zuela. Gaztaroko esperientziak dira arrastorik sakonena utzen dutenak-jarraitu du-, denboraren poderioz zailago da liluratzeko zailuzten gauzak aurkitzea".*

1978an, Iruñean zegoela, Jorge Oteizarekin harremanetan egoteko

aukera izan zuen herriro. Orduan ekin zion Arantzazuko korridoreko margoen zirimarrak egiteari. Ondoren Sopelan, Alemanian eta Puerto Ricoan egin zituen lan interesgarriak, horma lanak, batez ere.

### **"Jorge Oteizak amets eginarazten zigun"**

Gaur egun, egin duen azkenengo lan publikoa Zumaiako kamin-gaineko eskultura lehiaketarako lana izan da. Gainerakoan, aste-buruetan batez ere, tailerlean eta etxean etengabe ari da lanean: *"Ez da komeni luzaro ezer egin gabe egotea, kanporatu aurretik norbere bizipenek biltzeko arriskua izaten dute eta".*

#### **Gizakia helburu**

Xabier Egañaren lanetan gizakia errepikatzen da behin eta herriro, hausnarketa eta adierazpen gai gisa: *"Ez ditut normalean egoeren deskripzioak egiten; gizakiak egoera ezberdinetan jartzen saiatzen naiz".* Bestalde, 60eko hamarkadako Euskal Herriko egoera politiko eta sozial nahasiak bere estiloan nolabaiteko aztarna utzi omen du: apaingarri gehiegirik gabeko mihi-se eta eskulturen ordeaz, forma bortitz, gogor eta garratzak nabaritzen dira bere lanetan. Hala ere, denborarekin ere Shagallen lirikotasuna eta koloreak, Picassoren gorputzaren erabilera, eta Arriolaren materialen erabilera ere izan dute bere estiloan eragina.

### **Bere lanetan marrazkia eta konposizioa nabarmentzen dira**

Gaur egun han eta hemen aurkitzen dituen materialekin egiten du Xabier Egañak lan. Ez du ez egurra, ez harria, ez beste lehengairik normalean lantzen. Eta askotan beste artisau batzuekin egiten du lan. Adituek diotenez, marrazkia eta konposizioa dira Egañaren lanaren ezau-garri nabarmenetakoak.

## Sormen lana

Sormen lana benetan gogorra eta neketsua dela aitortu digu Xabier Egañak; *"etengabeko tentsioa eskatzen du"*. Artistak gainera bere buruarekin egin behar izaten du normalean borroka. Borrokan garaipenak arrakasta dakar normalean. Hala ere Egañak arrakasta soziala bera baino, artistaren intuizioarekiko garaipena bilatzen du. Erakusketak ugari egin dituen arren, ez ditu promozio lanak gogoko, besteak beste, bidean oztopo ugari aurkitzen direlako, *"eta azkenean, askotan dirua galdu ere egiten da. Maila altuetan oso mundu itxiak dira, eta askotan gezurrezkoak"*, azaldu digu. Xabier Egañak nahiago du ohiko lagunen iritzia eta kritika. Erakusketek, asko eta asko, atzera eginarazten diotela esan digu.

## "Ez ditut promozio lanak gogoko"

Hezkuntzaz, eta hain zuzen ere arte hezkuntzaz, ere hitz egin dugu

irakaslearekin, gaiak nahikoa kezkatzen duela ematen du eta. Eskoletan adierazpen artistikoa erakustek dituen zailtasunetaz hitz egin digu: *"Arteaz gozatzeko, ezagutu eta ikasi egin behar da lehenago, eta horrek gutxieneko diziplina eskatzen du, eta neska-mutilek ez dute hori ulertzen. Bestalde, arazo soziala ere badago: ikasleen %90ak arteak ezertarako ez duela balio pentsatzen du, eta ez daukate batere motibaziorik"*. Gaur egun gaztetxoek ezagutzarekin amets egiteari utzi diotela iruditzen zaio Egañari.

Uda geroztik Andoainen bizi den margolariak bere kabuz egin du bidea, inongo eskola edota unibertsitatera joan gabe: *"Oteizak berak sinetsarazi zidan unibertsitatean ez nuela ezer ikasiko; ni gaztea nintzen eta nire kasa edozer gauza egiteko gauza nintzela uste nuen orduan"*. Gaur egun unibertsitateko ikasketak interesgarriak izan daitezkeela uste du, hala ere, norbere lana eta esperientzia



Xabier Egaña La Salle-Berrozpeko irakasle

bezelakorik ez dagoela uste du.

Xabier Egañaren lanik La Salle-Berrozpe ikastetxean bertan ikus daiteke gertuen: ikastetxearen berrogeita hamargarren urtemuga dela eta, egin duen eskultura. Gainerakoan Zarautzeko San Pelaio elizan ere baditu margoak, eta herrian bertan Mitxelena poetari eginiko eskultura bat.

## EUROPEAN SCHOOL

### HIZKUNTZ AKADEMIA

- ✓ JATORRIZKO IRAKASLEGO TITULUDUNA
- ✓ INTERPRETATITZA ETA ITZULPEN ZERBITZUAK
- ✓ IKASTAROAK URTE OSOAN - "STEP UP" PROGRAMA, ESKOLARAKO LAGUNTZA - ENPRESETARAKO IKASTARO BEREZIAK
- ✓ AZTERKETA OFIZIALETARAKO PRESTAKUNTZA
- ✓ CAMBRIDGE, ALLIANCE FRANÇAISE TITULUTARAKO AZTERKETAK
- ✓ TALDE MUGATUAK

**INGELESA - FRANTZESA**

Kale Berría, 10 Tel. - Fax. 69 39 76  
BILLABONA



**OGI ZURI**

ogi berezi eta artesauak  
...  
etxerainoko zerbitzua

OKINDEGIA, S.L.

## OGI · GOXO



- TARTAK • UIJO BESOA • PASTELAK
- TEILAK-ZIGARRILOAK
- HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA



Kaleberria 28, Telf.: 59 03 07  
ANDOAIN



**TXERRIKIEN  
BANATZAILE  
ETA  
EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA  
Ama Kandida z/g - 307. Modulou - ☎ 592923  
ANDOAIN

## LARRAUL. 1970

## Lehenengo jaunartzea



**Ezkerretik eskuinera:** Arantxa Amonarriz, Pilar Irazu, Antonio Urbietta, Gema Jauregi eta Joxe Irazu. Atzean, Don Manuel Katarain apaiza.

Garai batean, ohitura zen legez, zazpi urte zutela egin zuten hiru neska hauek eta bi mutilak jaunartzea. Gaur egun jaunartzeak taldean egiteko nahikoa lan izaten da Larraulen, adin bereko neska-mutilak biltzea ez baita erraza. Hala ere, urtero-urtero izaten omen da jaunartzea egiteko neska bat edo beste.

Argazkian ikusten den bezala, gaur egun ere, neskek soineko luzeak eta mutilek trajea janzten dute jaunartzea egiteko; larrauldarrak, nonbait, ez dira oso habituzaleak.

Argazkian agertzen diren neska-mutilen izen-abizenak **Antton Amonarriz zenak** eman zizkigun orain dela hilabete.



## ESKERTZA

## Amonarriz Otegi'ar Anttonen emaztea, alabak eta sendiak

Eskerrak eman nahi dizkie Gipuzkoako Foru Aldundiari, Aiztondo bailarako Udalei, baita Imanol Aldaregia eta Jose Mari Albisu jaunei, gainerako meza-emaileei eta hiletan parte hartu zuten guztiei, denen artean familia giroa osatzen lagundu zutelako, eta bereziki Larraulgo Udalarari eta herritarrei emandako laguntza handiagatik.

## ANSELMO LARRARTE

**Larraulgo Larrunbide  
Etxeberrikoa; artisaua**



- **Noiz hasi zinen egurra lantzen?**

- Betidanik gustatu izan zait egurrarekin lan egitea; mutil kozkorra nintzela hasi nintzen eskuareak egiten, adibidez. Gero gaztetan, ebitzarako afizioa nuen, baina utzi egin behar izan nion, eta neguan denborapasa hasi nintzen egurra lantzen. Elxean ez daukagu telebistarik, eta

eskulanak egitea denborapasa ezin hobea da. Niretzat, egia esan, une txarretan sendagairik onena da egurrarekin aritzea.

- **Nola ikasi duzu?**

- Eskulan gutziak egin abala ikasten dira, baina horretaz gain, liburu asko ibili ditut esku artean, eta gaur egun ere askotan jotzen dut liburuetara. Ni gainera, inoiz ez naiz egiten dudarekin konforme gelditzen, eta beti saiatzen naiz bobetzen.

- **Figura eta tresna ugari egiten dituzu egurra erabiliz.**

- Bai, makilez gain, botoiak eta boligrafoak sartzeko ontzitzoak, adibidez. Azken hauek asko gustatu zaizkio jendeari. Malaxak ere eginda nago inguruko baserriar gutzietan. Esku artean daukadan azken lana gurutze bat da. Antton Amonarriz zenak orain dela gutxi eskatu zidan egiteko hilerriko kaperarako. Bestalde, etxea konpontzen ere ari gara, eta aurrealdeko bormari jartzeko habe batzuk ere lantzen ari naiz.

- **Makil asko egin al dituzu?**

- Ez asko. Egin dudak azkena, jabeak berak ekarri zidan. Bizpabiru urte izan zuen egurra mendian soka batez bilduta, egurrean balako kiribil batzuk egin arte. Egin dudak dotoreena izan da.

- **Jendea etortzen al zaizu eskariak egitera?**

- Bai etortzen zait, eta ezetzik esaten ez dakidenez... behar baino lan gehiago izaten dut. Aitzondon barrera liburuan nire aipamena egin zutenetik gainera, askoz ere gehiago. Abilaldiak eginez jende asko igarotzen da bementik makilak erakusteko eskatuz. Gero aboz abo, mendizaleen artean eta, asko zabaldu da makilen kontu hau.

- **Zein egur mota erabiltzen duzu?**

- Gerezia erabiltzen dut asko. Hagina ere bai. Material gogorra behar izaten da. Hala ere ez naiz urrutira joaten; mendian aurkitzen dudana hartzen dut. Egia esan, egurra ongi aukeratzea izaten da lanik zailena. Tornoak ez dit edozein egur hartzen. Tamainaren arabera ere, egur bat edo beste ere aukeratzen dut. Batzuetan saiatzen naiz mendian makil kiribilduak bilatzen, baina bala ere, eskal makila bestelakoa da; lau-laua.

- **Zein tresna erabiltzen duzu?**

- Tornoa, baina apaingarriak eskuz egin beharra dago. Purigrabadora ere erabiltzen dut.

- **Ez al duzu inoiz azoketara zure lana erakustera joatea pentsatu?**

- Ez, ez dut pentsatu ere egin, eta nahi izanez gero ere, ez nuke astirik izango. Ez ditut saltzen. Gebienek opariren bat ematen didate trukean, eta kitto.

## PERTSONAIA EZKUTUA



Beste behin eskaini nahi dizuegu gure lehiaketan parte hartuz sari eder bat irabazteko aukera. Oraingo honetan gure pertsonaia ezkutua asmatzea beti bezain erraza izango zaizuela pentsatzen dugu.

Bestalde, sariak zuetako asko parte hartzera eramango dituela espero dugu: **Andoingo Babexa kafetegiak zortzi lagunentzako merienda paregabea** eskainiko die irabazleari eta honen gonbidatuei. Beraz, beti bezala, lehiaketan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Zorte on!

Gutunak honako helbidera bidali itzazue:

AIURRI Dr. Huizi Kalea 15. behea  
20140 aANDOAIN

**BABEXA  
KAFETEGIA**  
Urtebetetzeko  
meriendak

KALEBERRIA, 12 - TELF 59 27 52

**ANDOAIN**

**HITZALDIAK****ANDOAIN**

**Maiatzak 24:** EAJ-PNVk antolatutako **Politika Plaza** hitzaldi sortari jarraipena emanez **Txema Montero** izango da Kultur Etxean 20.00etan "Zer da sobiranotasuna?" izenburuko hitzaldia eskainiz.

**MUSIKA****ADUNA**

**Maiatzak 18:** Anje Duhalderen emanaldia kultur aretoan 23.00etan.

**ANDOAIN**

**Maiatzak 18:** Azpetiko musika bandaren emanaldia Goikoplazan 19.30etan.

**ANTZERKIA****ZIZURKIL**

Haur antzerki astea

**Maiatzak 24:** herriko haur antzerki tailerraren emanaldia.

**Maiatzak 27:** Ikastolako 3 eta 4. mailako ikasleen emanaldia. Jarraian San Millan eskolako haurrek eskainiko dute antzerki saioa.

**Maiatzak 28:** Pedro Mari Otaño ikastetxeko 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleen emanaldia.

**Maiatzak 29:** Poti, Kiki eta Kiriki pailazoak.

**IKASTAROAK****ADUNA**

**Sukaldaritza ikastaroa.** Izenematea: 1.000 pezeta. Interesatuak deitu telefono honetara: 69 39 30

**IBILALDIAK****ANDOAIN**

**Maiatzak 19:** Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta. **Bida-soari bira, 5. ibilaldia:** Artesiega-Saioa-Belate-Gorostiaga.

**BILLABONA**

**Maiatzak 18-19:** Aizkardi mendiko taldeak antolatuta **Pirinioetan ibilaldia:** Lenito (2.291m.)-Peraforca-Alanos-Liza-Quimboas-Petrafiha-Chipeta-Oza.

**IKUSENTZUNEZKOAK****ADUNA**

**Maiatzak 29:** Ramon Agirrek "Antartida" izeneko diapositibak eskainiko ditu 20.30etan kultur aretoan.

**ZIZURKIL**

**Maiatzak 21:** Jabier Albisturrek Argeliari buruzko diapositibak eskainiko ditu.

**ERAKUSKETAK****BILLABONA**

**Maiatzak 27-31:** Antzinako euskal musikatresnak ikugai Gurea erakusgelan

**DEIALDIA****LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ANDOAIN**

**Maiatzak 22:** bilera Urigain Kultur Etxean 20.30etan.

**BILLABONA**

**Maiatzak 20:** bilera euskaltegian 20.30etan.

**LEHIAKETA****ANDOAIN**

**San Juan Jaiak 96 kartel lehiaketa:** lanek 60 zm-ko altuera eta 42 zm-ko zabalera izango dute, eta koloretan eginda aurkeztuko dira **maiatzaren 23 eta 24ean Kultur Etxean 10.00-13.00 bitartean.** Bi mailetan banatuko dira partehartzaileak: 12-16 urte bitartekoak, 17tik gorakoak. Gaztetxoenen artean hiru sari banatuko dira, eta bi sari izango dira helduentzat. **Maiatzak 31-ekainak 9 bitartean** lan guztiak ikusgai egongo dira Kultur Etxean.

**BESTE****ZIZURKIL****Udalekuak**

Oporretan Euskaraz udaleku iriak. Informazio gehiago: 69 30 66

**AIZTONDO bailarako haurrentzat Muskilek antolatuta**

**Maiatzak 25-26:** Zuhatzan as-teburua. Izenematea ohiko lekuetan. Dirusarrera maiatzaren 20a baino lehen egin behar da: Muskilekoek 3.000 pezeta, gainerakoek 3.500 pzeta.

**Maiatzak 28:** Getxoko Butro gaztelura ibilaldia. Izenematea: 69 39 30

**MERKATU TXIKA**

Adineko emakumea zaintzeko pertsona arduratsua behar da. Tf: 46 23 98



**Oraindik AIURRI  
aldizkaria  
etxean jasotzen  
ez baduzu zeren  
zain zaudete?!**

Deitu telefono honetara



**30 07 32**

---

# GOROSTI HERBORISTERIA

**BERRIA**

BELARDENDA ETA DIETETIKA  
INTSENTSUA ETA KANDELAK  
TERAPIA ALTERNATIBOEI BURUZKO  
AHOLKUGINTZA  
METODO BIOLOGIKOAK ERABILIZ HAZITAKO  
PRODUKTU NATURALAK

OSASUNA LANDAREEN BITARTEZ

Txermin kalea 13, behea  
☎ 69 20 56  
Billabona



# fotocolor

ERREBELATUA ORDU EAN

Zure argazki  
denda



**Kodak**  
**EXPRESS**  
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

JOSE IGNACIO UNANUE  
JUAN BTA. ERRO 1 - ☎ 59 43 32  
20.140 ANDOAIN